



ASTEARTEA

2019/07/02
7. urtea, 1.084. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Eredu berriarekin Kilometroak festa urte osora zabalduko dute

Lau urteko gogoeta prozesuaren ondoren, Kilometroak jaia antolatzeke eredu berria prestatu dute Gipuzkoako ikastolek; urriko jaialdia mantenduko duten arren, dimentsio txikiagoa izango du eta parte hartzea bultzatuko dute // 2



PILOTA ATARIKO PILOTAKADAK

V. Ataria Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren Berastegin. Tolosaldeak izango dituen etorkizuneko pilotarien zazpi partida izan ziren, eskuz eta palaz. Pilotalekuko harmailak jendez beteta, pilotariak maila polita erakutsi zuten. Sari banaketan Oinatz Bengoetxea eta Beñat Urretabizkaia pilotariak izan ziren // 5

IRATISAIAR


ALEGIA – Beistin Auzoa

Azken etxebizitza!



4 logela + 2 bainugela 206m2 erabilgarritik gora
315.000€ + BEZ

VILLABONA – Kale Berria 48



3 logela + 2 bainugela
205.000€ tik hasita

Etxebizitza herri erdigunean!



KALE BERRIA 46, BEHEA
20150 VILLABONA

607 445 484
943 69 02 97

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com



Villabonako Mintzolako egoitzan prentsaurrekoa eman zuten Gipuzkoako ikastoletako ordezkariak. JOSU ARTUTXA

Parte hartzea bultzatuz, urte osora zabalduko dute Kilometroak jaia

Kilometroen jai eredu berriaren aurkezpena egin dute Gipuzkoako ikastoletako ordezkariak asteburuan; urriko jaialdia mantendu egingo dute, baina dimentsio txikiagoan

I. Saizar Amasa-Villabona

Kilometroak jaia antolatzeke eredu berri bat prestatu dute Gipuzkoako ikastolek, lau urteko gogoeta prozesu baten ondoren. Parte hartzean oinarritutako festa nahi dutela azaldu zuten larunbatean Villabonako Mintzolako egoitzan egindako prentsaurrekoan. Hain justu, 2020an Zubimusu ikastolak antolatuko ditu Kilometroak.

Eredu berria izanagatik, «Kilometroak ez da amaituko, indarberrituko baizik», esan zuten Ne-

kane Artola Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak. Datorren urtetik aurrera, «Gipuzkoako ikastola guztien parte hartzea bermatuz, urte osoan zehar ekimenak hedatuko dira», esan zuten Artolak. Euskal Herriko eragile ezberdinekin batera, jaialdi txikiak antolatuko dituzte ikastolek urte guztian zehar.

Hala ere, urriko lehen igandean egin ohi duten jaialdia mantendu egingo dute, baina «dimentsio txikiagoan». Parte hartzaileagoa izan dadin, zirkuitua egin beharrean gunen tematikoe-

tan antolatuko dute festa eguna. Horrekin batera, orain arteko kontzertuen eskaintza mugatu egingo dute.

Kilometroak jaiaren ezaugarrien ganean hausnartu zuten agerraldian: «Jendartea euskalduntzeko, hezkuntza eremutik garatu behar diren bideen defentsa eta aldarrikapena» sustatuko ditu festak; herriari onura soziala sorrarazteko asmoz, euskara eta euskal kulturaren defentsan oinarrituko da; Gipuzkoa gaindiko beste herrialdeekin batera, Euskal Herriko naziotasuna islatzen saiatuko dira eta auzolanaren filosofia eta kontzientzia garatu eta indartzen ahaleginduko dira. «Ludikotasuna bultzatuz, jaia gozagarri, osasungarri eta errespetagarri izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditugu», Artolaren esanetan.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

Datozen lau urteetarako lanak zehaztu dituzte

Amasa-Villabonako Udalak agintaldiko lehenengo osoko bilkura egin du: alkatearen soldata %28 jaistea erabaki dute



Pasa den asteazkenean egin zuten osoko bilkura Villabonan. ATARIA

I. Saizar Amasa-Villabona

Pasa den astean Villabonako udaletxean egindako osoko bilkuran, udaleko funtzionamenduari eta udal organoen eraketari buruzko hainbat gai eztabaiatu eta erabaki ziren.

Besteak beste, ordezkari politikoaren liberazioen eta ordainsarien inguruan erabakiak hartu ziren: Beatriz Unzué alkateak urtean 37.900 euro gordin jasoko ditu; aurreko agintalditik %28 jaitsiko zaio soldata. Xabat Laborde ere, alkateorde izendatu dutena, erabateko dedikazioz ariko da udalean, eta urtean 31.911 euro gordinen soldata izango du. «Kopuru hori, EAJk aurreko legealdian alkatearen idazkari lana egiteko aukeratu zuen konfiantzazko pertsonak zuen soldataren berbera da», azaldu zuten. Udal gobernu berriak postu hori ezabatzea erabaki du, eta horren ordezkari Laborde liberatzea, soldata berberarekin.

Oposizioa liberatua, Maite Izagirre, %60,5eko lanaldian ari tuko da eta urtean 17.375,54 euro gordinen soldata izango du.

Bestalde, talde politikoei hilean 226 euro bideratuko zaizkie, eta 71 euro gehiago jasoko dituzte zinegotzi bakoitzeko. Hor ere %28ko jaitsiera izan dute zenbatekoek eta jaitsiera bera onartu dute udaleko organoetan parte hartzeagatik jasoko dituzten ordainsarrietan.

Puntu horretan desadostasuna agertu zuten oposizioako kideek: neurri «elitista eta frankista» gisa definitu zuen Maria Luisa Arijá PSE-EEko zinegotziak ordezkari politikoaren ordainsarien

jaitsiera, eta gaineratu zuen udalera joateagatik horrelako kopuru txikiak jasota, pobreak diren pertsonen ezingo dutela zinegotzi izan. Patxi Agirre EAJko zinegotziak esan zuen «zinegotziek beren duintasuna behar dutela». Horren aurrean, udal gobernuak jarrera hori kritikatu zuen: «Bardirudi diruagatik etortzen zaretela udaleko bilkuretar».

Oposizioa abstenitu arren, EH Bilduren aldeko zazpi botoekin onartuta geratu zen proposamena.

BATZORDE INFORMATZAILEAK

Udal gobernu berriak zazpi batzorde informatzaile eratu ditu datorren agintaldian lan egiteko. Beatriz Unzué alkatea honako hiru batzordeetako burua izango da: Ogasuna, garapen ekonomikoa, enplegua eta merkataritza; Pertsonala eta barne araubidea eta Herriarren parte hartze batzorde berezia.

Xabat Labordek Hirigintza, zerbitzuak eta ingurumena eta Memoria eta elkarbizitza batzorde berezia kudeatuko ditu. Euskara, kultura, hezkuntza, gazteria eta kirola eramango duena Gorka Kamio izango da; eta Gizarte politika, aniztasuna, adineko pertsonak eta politika feministen ardura Arantxa Lopezek izango du.

Lan banaketa horrek, zazpi aldeko boto jaso zituen EH Bilduren eskutik, eta oposizioa sei kideak abstenitu arren, proposamena onartuta geratu zen.

Azkenik, aipatu ohiko osoko bilkurak hilabeteko azken asteartean egingo dituztela, 19:30ean.

Denboran atzera egin zuen Tolosak

I. Moto eta Kotxe Klasikoen Topaketa ospatu zen, igandean, Tolosan. Egun osoko egitarauaz goatzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.



Era guztietako auto eta moto klasikoak ikusteko aukera izan zen Euskal Herria plazan; goizean, ibilaldia egin zuten. I.U.

Irati Urdalleta Tolosa

Tolosako Euskal Herria plazak hainbat hamarkada atzera egin zuela zirudien, igandean, I. Moto eta Kotxe Klasikoen Topaketaren ondorioz. Bertan elkartu ziren dozenaka parte hartzaile eta jakin-minez inguratu ziren hainbat herritar.

Joseba Mendizabal antolatzailearen hitzetan, 30 kotxetik gora eta 40 moto inguru elkartu ziren. «Kotxe guztiek 45 urte baino gehiago dituzte eta 1913ko bat eta 1915eko beste bat dauzkagu, baita 20. eta 30. hamarkadakoak ere». Mendizabalentzat ez zen horrelako topaketa bat antolatzen zuen lehen aldia. Izan ere, aurreko urtean Zizurkilen ere egin zuten. «Tolosan, lehen, Vespa eta Lanbrettena egiten zen, baina aurreko kotxeak eta beste moto klasikoak ere sartu ditugu».

Egun osoko egitaraua izan zuten. Hain zuzen ere, goizean, Euskal Herria plazatik atera, eta Alegiatik Ordiziara joan ziren, Larraitzera igo eta Amezketara jaitsi ziren, han hamaiketako egiteko, berriro plazara itzuli aurretik. Bazkaldu ondoren, kotxe eta moto politenari sariak eman zitzaizkien eta festa borobiltzeko, Txaston Dixie Band tadeak kontzertua eskaini zuen plazan.



BLUES ASTEBURUA TOLOSAN

Lau egunez, blues doinuak izan dira nagusi Tolosako txoko ezberdinetan. TolosandBlues 2019 jaialdiaren barruan, estilo honetako doinu alaiak eta kalitate handiko musikariez goatzeko aukera izan da. Irudian, Bartzelonako Wax & Boogie Rhythm Quartet taldeak, ostiralean Ilargi taberna atarian eskaini zuen kontzertuko une bat. JOSU ARTUTXA



30 URTEKO ELKARTASUNA

1989ko ekainaren 28an sinatu zen Tolosa eta Uztaritzeren arteko senidetza agiria. Urtemuga berezia ospatzeko, dantza eta musika emanaldiak izan ziren, larunbatean. Ondoren, ekitaldi instituzionala egin zuten udaletxean. TOLOSAKO UDALA



BETIKO OTORDU JENDETSUA

Orain arte egiten zen Betizu jatearen orde, herri bazkaria egin zuten, larunbatean, Amezketako Ugarte auzoan. Urtero izaten duen arrakastarekin jarraituz, jende ugari bildu zen frontoian, Euskal Parrillaren otordua dastatzeko. I.A.



Orotariko opariak eta hitz hunkigarriak jaso zituen Migel Mari Izagirrek, Asteasun. J.A. / I.U.

Eskualdean ere ospatu dituzte sanpedroak

Urkizu eta Larraitz auzoetan, Asteasun eta Leaburun giro ederrean eta ekimen jendetsuekin esan diote agur ekainari

Josu Artutxa

Gipuzkoan herri gehienetan ospatzen diren festak dira sanpedroak. Eskualdean ere, lau herrietan ospatu dituzte. Ekaineko azken asteburuan, ekitaldi ugari izan dira Tolosako Urkizu auzoan, Abaltzisketako Larraitz auzoan, Asteasun eta Leaburun.

Azken horretan, esaterako, triatlói txapelketa egin zuten, gazteek. Iarunbatean. Zaku-karrera, korrika eta bizikleta. Hiru kirol horiek uztartuta arratsalde ederra pasa zuten San Pedro egunaren aitxakian. Goizean, meza-aren ostean, hamaiketako izan zuten, eta arratsaldean triatlóiarekin eman zieten jarraipena jaiei. Guztira hamabi lagun animatu ziren kirola egitera, eta hiru taldeetan banatuta osatu zuten proba. Animo eta txalo artean aritu ziren begira zeudenak.

Iluntzean poteo musikatu izan zuten, herri afariaren aurretik. Afalostea girotzeko bingoan aritu ziren, eta gauean, Harresi musika taldearen emanaldia izan zen plazan. Tartean izan



Leaburun, triatlói egin zuten gazteek. IRATI SAIZAR

zen parranda luzatu zuenik ere, goizaldeko 04:00ak inguruan, sokatira egin baitzuten.

Igande goizean, berriz, adin guztietako herritarrentzat presatutako egitaraua izan zen. Txiki-ekienek eskulanak egin zituzten, adinaren arabera banatuta. Batzuk amets-harrapatzaileak edo diru-zorroak egiten aritu ziren bitartean, besteek koloretako burbuilekin marrazkiak egin zituzten. Helduentzat ere izan zen aukerarik, txakolin eta pintxo dastaketa izan baitzen plazan.

MEREZITAKO AGURRA

Asteasuko Elizmendi auzoko soka dantza oso berezia izan da aurtan, merezi zuen moduan omendu baitzuten irailean erretiroa hartuko duen Migel Mari Izagirre herri langilea. Agurra dantzatu zioten dantzariak, eta Pili Legarra alkateak, bere argazkiarekin eta Haritz Mujika bertsolariaren bertsoarekin osatutako koadroa eman zion. Joxe Ramon Aiertza zinegotziak jantzi zion txapela, eta azkenik, bi bertso kantatu zizkieten.

Jaietako azken eguna, berriz, hamaiketakoarekin indarrak hartuz hasi zuten. Ondoren, patata tortilla lehiaketa izan zen, baita sagardo dastaketa ere. Egurdi aldera, berriz, herri kirolak izan ziren, mukuru beteta zegoen Asteasuko plazan. Bertan aritu ziren Xabier Orbegoza Arria V.a eta Ugaitz Mugerza aizkoran eta Inar Urruzuno eta Mikel Lopetegi Urra harri jasotzen. Hauek, zilindro koparekin eta kubikoarekin aritu ziren. Azkenik, Inaxio Perurenak erakustaldia egin zuen, eta Telleria eta Lizaso aritu ziren bertsotan.

Ikasi kazetaritza lanbidea urtebetez **BERRIA**n!

BERRIAK KAZETARITZAn trebatzeko **bost** lanpostu eskaintzen ditu 2019-2020ko ikasturterako.

Eskaintzen da:

- ▶ Praktiketako lan kontratuak.
- ▶ 2019ko irailetik 2020ko ekainera bitarteko iraupena.
- ▶ BERRIAk Andoain duen egoitza nagusia, edo Bilboko, Gasteizko, Iruñeko edo Baionako ordezkaritzetan.

Bete beharreko baldintzak:

- ▶ Kazetaritza arloan lan egitea ahalbidetzen duen unibertsitate titulua izatea.
- ▶ Euskara maila handia.

Kontuan hartuko da:

- ▶ Kazetaritza arloan praktikak egin izana.
- ▶ QuarkXpress programa erabiltzen jakitea.

Deialdira aurkezteko epea 2019/07/14 artekoa izango da.

Interesa duenak bidal dezala curriculuma gizabaliabideak@berriataldea.eus helbide elektronikora, 'KAPR_2019' erreferentzia zehaztuz.

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZO-A TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

Tolosaldeko pilota festa

V. Ataria Pilota Txapelketaren finalak jokatu dira eskuz eta palaz; Berastegiko Ipuliño pilotalekuko harmailetan jende ugari elkartu da eta pilotariek maila polita erakutsi dute

Erredakzioa Berastegi

V. Ataria Pilota Txapelketako zazpi finalak larunbatean jokatu ziren, Berastegin. Harmailek jendez segituan bete ziren, eta giro paregabea izan zen. Kan-txan ere maila paregabea ikusi zen, eta lehen finaletik azkenera zaletuen txaloez ez zuten etenik izan. Zazpi partida jokatu ziren goizean zehar, Ipuliño pilotalekuan. Berrikuntza pilotariek soinean eraman zuten, izan ere, bakoitzaren izena zuen kamiseta-rekin jokatu zuten, baina lehen aldiz, gorritz nahiz urdinez.

Finalak bukatzearekin bat, sari banaketa ekitaldia burutu zen. Aurten, sariak ematen Miren Larrarte, Beñat Urretabizkaia eta Oinatz Bengoetxea pilotariak izan ziren, Amaia Azkue Berastegiko alkatea ondoan zutela. Izan ere, Berastegiko Udalak erraztasun eta laguntza guztiak eman zituen Ataria txapelketaren finalak giro paregabean joan zitezen. Aldi berean, eskerrik beroenak eman behar zaizkie txapelketa antolatzen ibili diren guztiei eta sari banaketara joandako pilotariei.

EMAITZAK	
BENJAMINAK B, ESKUZ	
Lanzeta-Iraola	16
Ruiz-Eizagirre	7
BENJAMINAK A, ESKUZ	
Gonzalez-Plaza	10
Otaegi-Mayoz	16
ALEBINAK, GOMAZKO PALETAZ	
Juanenea-Beobide	8
Sarasola-Navarro	18
ALEBINAK, ESKUZ	
Insausti-Lopetegi	7
Murua-Elola	16
INFANTILAK, GOMAZKO PALETAZ	
Arretxe-Tejeria	20
Otegi-Aranburu	12
INFANTILAK, ESKUZ	
Gorostidi-Mujika	18
Tejeria-Tolosa	5
KADETE-JUBENILAK, PALETAZ	
Agirre-Murua	17
Iturrioz-Aranburu	25



Benjamin B mailako irabazleak, Lanzeta eta Iraola. I. SAIZAR



Benjamin A mailako irabazleak, Mayozen orde zaria hartu zuena eta Otaegi. I.S.



Gomazko paletaz, alebin mailako irabazleak, Navarro eta Sarasola. I. SAIZAR



Eskuz, alebin mailako irabazleak, Elola eta Murua. I. SAIZAR



Gomazko paletaz, infantil mailako irabazleak, Arretxe-Tejeria. I. SAIZAR



Eskuz, infantil mailako irabazleak, Mujika eta Gorostidi. I. SAIZAR



Gomazko paletaz, kadete-jubenil mailako irabazleak, Iturrioz-Aranburu. I. SAIZAR



'Ataria' Irratiak finalen berri eman zuen zuzenean Berastegiko frontoitik. I. SAIZAR

Alaitz Imaz eta Jexux Mari Goenaga, irabazle Altzon zein ligako sailkapenean

Almitza sega elkartearen ligako azken saioa egin dute, eta Europara zein joango diren erabaki da

Imanol Garcia Landa Altzo

Almitza elkarateak antolatutako sega ligaren hirugarren eta azken saioa egin zen Altzon larunbatean. Alaitz Imaz hernaldearra izan zen saioko irabazlea eta baita ligakoa ere emakumezkoetan. Europako txapelketara bera-ekin batera joango dira Ainara Otamendi ibartarra, Maide Garmendia zaldibiarra, Luixa Uzku-dun leaburuarra eta Graxi Elosegiz zaldibiarra.

Gizonezkoetan Jexux Mari Goenaga errezildarra izan zen Altzoko irabazlea, eta baita ligakoa ere. Goenagarekin batera, Europara ondorengoak joango dira oraingo: Bixente Mitxelena oiartzuarra, Migel Mari Jauregi zaldibiarra, Julen Gabirondo urnietarra, Jon Otegi oiartzuarra eta Amaur Arrospide leaburua-



Altzoko saioan parte hartu zuten segalariak. ANTONIZTUETA

rra. 30 urte azpiko beste lau segalari falta dira, eta taldea osatzeko sukaldeko lana egin beharko dute antolakuntzakoei.

Gazteei dagokionez, Maide Garmendia izan da nesketan irabazle Altzon. Europako txapelketara, 15 urte azpikoetan, Izadi Arrospide leaburuarra sailkatu da. Mutiletan, Arkaitz Gabirondo gazteluarra izan da irabazle Altzon, eta 15 urte azpikoen artean Europako Txapelketara joango direnak Josu Mendizabal zaldibiarra eta Jokin Mikeo berue-terra izango dira.

Antolakuntzatik balantze ona egin dute Altzoko saioaz, Gari-koitz Llobregat kideak azaldu duenez: «Saioa oso polita izan zen, eta ikusleen aldetik ere erantzun txukuna. Belardia nahiko txukuna zegoen, belarra nahiko ona, paraje polita, eta eguraldiarekin beldur pixka bat bagenuen, baina azkenean nahiko fresko egin zuen. Segarako oso ona».

Europako txapelketa Austrian egingo da, abuztuaren 15ean. Norbanako sailkapenaz gain, taldekakoa ere izango da.



Irati Lakunza, makurtuta, laugarrena ezkerretik. ATARIA

Irati Lakunza, bi aldiz zortzigarren Europakoan

Erredakzioa Tolosa

«Berriz ere egin du Iratik», esan dute Igarondo Urpekoak bere taldeko kideek. Tolosarra Ionin (Grezia) izan da Europako Hegats Igeriketa Txapelketan. Hiru proba egin ditu Lakunzak, eta bitan finaleraino iritsi da, 400 ur gainekoan eta 400 eska-

fandran, eta bietan zortzigarren postua lortu du, Europako txapelketa batean inoiz lortu duen posturik onena. Bere balentria borobiltzeko, 200 ur gainekoan 14. postuan gelditu da.

Irati Lakunzarekin batera, Grezian Jon Espina eta Maitane Tolosa egon dira, entrenatzaile eta ordezkari bezala.



Arsenal elkartekoei omenaldia egin zieten unea. ATARIA

Arsenalekoei omenaldia

Irati Urdalleta Tolosa

Areto futbolak hartu zuen Usabal kiroldegia aurreko astean, San Joan txapelketarekin, eta igandean izan ziren finalak. Benjamin eta alebin mailetan banatuta, nesken eta mutilen 56 taldek hartu dute parte txapelketan zehar.

Aurtengoa berezia izan da, 30 urte ondoren Arsenal elkarateak antolatu ez duen lehenengoa

izan delako. Lekukoa hartu dute guraso talde batek, eta egindako lanarengatik Arsenalekoei omenaldia egin zieten igandean.

Emaitei dagokionez, benjamin nesketan Ausartak izan da txapelduna eta Intxurre A txapeldunorde; benjamin mutiletan, Anoeta Team eta Los Fieros; alebin nesketan Beasteiko Tigreak eta Neska Alaiak; eta alebin mutiletan, Arpa Joleak eta Leopardo Team.

Lehen postutik gertu aritu dira Tolosaldeakoak

I. Garcia Landa

Baionan jokatu da ETE ligako laugarren estropada eta gertuago izan dute Tolosaldea traine-rukoek bandera. Hirugarren postua lortu dute, Hibaika eta Zumaiaren atzetik, aurreko aste-ko laugarren postua hobetuz. Zap-pore gaziarekin geratu dira Tolosaldeako arraunlariak, bandera lortzeko aukera ikusi baitute. «Estropada gure gustukoa zen, itsasadarrean, erlojuaren aurka. Joateko luzean ondo joan ginen, eta gero itzuleran hasi ginen pixka bat arraunketa moztan, behar bezala ez bukatzen, eta hor joan zitzaizkigun segundoak», esan du Itsaso Aizpurua arraunlari zizurkildarrak.

Lehen lau postuei begiratuta, Hibaikak 11.05 egin zuen, Zu-



Tolosaldea trainerua. LUIS AZPEITIA

maiak 11.07, Tolosaldeak 11.09 eta Kaikuk 11.10. Hauetan azkarrena Tolosaldea izan zen lehen luzean. «Esaten ziguten lehenengo gindoazela, eta azken bi

minutuetan ez genuen arrauna gustura egin, eta hor joan ziren segundoak. Hartzen diren bezala, joan egiten dira», azaldu du Aizpurua.

Ligaren sailkapenari begira, hirugarren jarraitzen du Tolosaldeak, 34 punturekin. Hibaika, lau estropadak irabazita, lehenengo doa 44 punturekin, eta Zumaiak bigarren postuari heltzen dio, 39 punturekin. Kaiku 32 punturekin laugarrena da, eta bosgarren postuan Deustu dago, 31 punturekin. «Aurrera begira ikusten dugu hobetzeko aukera dugula, eta ea hori erakusten dugun», esan du Aizpurua. Datorren aste-buruan atsedendia izango dute, eta uztailaren 14an Portugaleten izango da ligako bosgarren estropada.

Jexuxmari Mujika, txapelduna eta lehen mailakoa

Gipuzkoako Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketa irabazi du ibartarrak Usurbilen; Aratz Mugertzarekin lehia borrokatua eduki du

Asier Imaz Ibarra

Jexuxmari Mujika Gipuzkoako lehen mailako aizkolaria da. Usurbilen txapeldun geratu ondoren lortu du jausia. Lau kana-erdiko eta bi oinbiko ebaki behar zituzten aizkolariek bigarren mailako txapelketaren finalean.

Aratz Mugertza izan zen lehen enborretan azkarrena, baina irteera bizi horri eustea lortu zuen Jexuxmari Mujikak. Ondoren, aurrea hartu eta aban-

taila mantentzea lortu zuen. Lehia ikusgarria izan zen eta horrek denboran eragina izan zuen. Mujikak lan guztiak amaitzeko 15 minutu eta 15 segundo behar izan zituen. Aratz Mugertza 15.56rekin geratu zen. Hirugarrena Luis Txapartegi izan zen, 16.36rekin. Eskualdeko bigarren ordezkariak, Jokin Alkizalete asteasuarrak, laugarren egin zuen 17.24rekin. Julen Aranbarri eta Suhari Rodriguez bosgarren eta seigarren izan ziren.



Jexuxmari Mujika txapelduna. I.E.

Altuna III.a eta Artolaren arteko derbia, igandean

A. Imaz

San Fermin Txapelketako finala, lau eta erdian, uztaillaren 7an jokatu dute eskualdeko bi pilotarik. Iruñeko Labrit pilotalekuan 11:00etan hasiko da jaialdia, urteko bereziena. Lehen partida Arteaga II-Larunbek eta Peio Etxeberria-Tolosak jokatu-

ko dute. Ondoren etorriko da Altuna III.aren eta Artolaren arteko finala. Profesionaletan jokatu dute bigarren finala izango da. Lehena, hau ere lau eta erdikoa, Artolak irabazi zuen bigarren mailan, 22-8ko emaitzarekin 2014an.

Igandeko partidak, ordea, ez du zerikusirik izango, bi pilota-

riak ordukoak ez direlako. Jokin Altunak finalerdietan Joseba Ezkurdiari irabazi zion Sopelan, ostiralean, 22-19. Iñaki Artolak errazago kaleratu zuen Bakaikoa Barañainen, 22-9ko emaitzarekin. Alegiarrak Baiko enpresarekin sinatu duen hitzarmen berria, 2021era arte, igandeko finalarekin ospatuko du.

GUTUNA

Greba orokorra!

Langile borrokak indartsu handitzen ari dira Hego Euskal Herrian, enpresetako gatazketatik sektoreko grebetara. Langile klaseak frogatu du kaleetan eta greben jarraipen zabalean, prest dagoela borrokan indarrak biderkatzeko eta ofentsibara pasatzeko. Horretarako, borrokak elkartu behar ditugu Greba Orokorra antolatuz borroka plan baten banean, aldarrikapenak elkartuko dituen eta gobernu zein patronalak atzera egitera behartu arte jarraituko duena.

EAJ eta PSEren gobernuak saldu nahi duen «euskal oasiaren» gezur handiaren frogarik onena langile borrokak dira. Enpresari eta bankari handiak ederki aberastu dira krisiarekin. Enpresa irabaziak biderkatu egin dira eta marka guztiak hautsi dituzte azken urte hauetan, EAJ, PSE eta PPk zergak jaitsi dizkien bitartean. Irabazi horiek langile klasearen aurkako erasoetatik datoz zuzenean: hitzarmenen blokeoa, lan erreformak, EREak, kaleratzetak, pribatizazioak eta murrizketak. EHn, azken 10 urteetan KPI hamar aldiz gehiago igo da soldaten batz bestekoa baino, eta tartea askoz ere handiago da soldata baxuenetan. 19 eta 25 urte bitarteko gazteen batz besteko soldata 7.374 eurotako da urteko, gutxieneko soldatara ere ez da iristen.

Patronalak eta euskal administrazioek kosta ahala kosta eutsi nahi diote azken urte hauetan lortu dituzten botere eta irabaziei. Horregatik erantzuten dute blokeoarekin eta errepresioarekin. Ez da diru kontua bakarrik, klaseko aginte auzi bat da. Garaipenak lortzea borroka luzeago eta gogoragoak eskatzen ari da. Horregatik da are beharrezkoagoa borroken batasuna, indartsuago kolpatu beharra dagoenean.

Mundu mailako ekonomia amildegi ertzean dago. 2008tik sorturiko espekulazio burbuila berriaren leherketak, beste gain ekoizpen krisi bat eragin dezake.

Gobernutik eta patronaletik behin eta berriz esaten zaigu ezin direla lan baldintzak hobetu, lehiakortasuna galtzen delako nazioarteko merkatuan. Etengabe erabiltzen dituzte enpresa itxieren eta kaleratze masiboen mehatxuak langile mugimenduen aurka. Baita gezurrezko kanpaina ideologiko sakona ere, gure aukeren gainetik bizi garela esanez, beraien direnean geroz eta gehiago jotzen dutenak zorpetzearen eta espekulazioaren negozioa. Burgesiak argi utzi ditu bere asmoak. Industria birmoldaketa berri bat, austeritate politika gehiago eta lan prekarietate gogorragoa dira Eusko Jaurilaritzak eta patronalek dituzten errezetak gure kontura aberasten jarraitzeko.

Sistema kapitalistaren logikaren baitan ez dago konponbiderik. Langileok ez ditugu burgesiak eragindako krisiak behin eta berriz ordainduko. Beharrezkoa da gizartearen eraldaketa sozialistaren alde egingo duen alternatiba iraultzaile bat eraikitzea, enpresari handi gutxi batzuen diktadurarekin behin betiko amaitzeko.

Erresidentzietako, garbikuntzako, Bizkaiko metaleko, Gipuzkoako papergintza eta grafikagintzako eta beste hainbat sektoreko langilek argi erakutsi dute badaudela indarrak. Horregatik elkartu behar ditugu gure indarrak borroka bakar batean, Euskal Herriko greba orokor batean. Klaseko sindikalismoa behar dugu, borrokalaria eta demokratikoa, langile klasearen borroka bultzatu eta elkartuko duena, patronalari aurre eginez eta mehatxuen aurrean makurtu gabe.

Manu Odriozola eta Jesus Aranzegi.

Tolosaldeko Ezker Iraultzailea

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO UZTAILAK 2
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Heziraul, iraultza lan prestakuntzan eta Orientabidea ikasgaietan

Lanbide Heziketako ikastetxe-ko ikasleek Lan Prestakuntza eta Orientabidea (LPO) deitzen den ikasgaia dute. Ikasgai horretan trebatzen dira ikasleak lan mundura salto egiteko, lan ibilbiderako, eta lana eten edo bukatzen denerako. Ikasgai horretan curriculumak egiten dira, nominak interpretatzen ikasten da, langabezia prestazioen zenbatekoak ateratzen ikasten da eta abar.

Tolosaldea LHII ikastetxeko Lan Prestakuntza eta Orientabideko alorak, LPO ikasgaia berritzeko beharra ikusi zuen. Eta Lanbide Heziketarako euskarazko materiala sortzeaz arduratzen den Laneki elkartearekin batera lantaldea osatu eta Heziraul izeneko Berrikuntza proiektua jarri zuten martxan.

Heziraul metodologiarekin LPO ikasteko era irauli dute. Pedagogia eredu berritzaileen eta

etik abiatuta, **Alderantzizko Ikaskuntzan oinarritzen da.** Rolak irauli egiten dira, pentsamendu bisuala indartzen da, eta ikasgela gamifikatu.

Ikasgelan zein ikasgelatik kanpo lan egiteko pentsatuta dago Ethazi erronken, proiektuen eta jardueren bidez.

Heziraul baliabideak ikasle eta irakasleekin partekatzeke webegune bat sortu da eta guztien eskura jarri dute helbide honetan: <http://heziraul.eus>. Urte bukaerarako webgunean izango dira baliabide guztiak denaren eskura.

NOLA ERABILI HEZIRAUL?

Eduki multzo bakoitzeko baliabide hauek daude: infografia, aurkezpena, azpi eduki bakoitzaren bideoa -hiru eta zazpi birtartean, kasuan kasu-, Kahoota eta LpOka joku kolaboratiboa.

Bideoek galderak txertatuta

dituzte, Edpuzzle aplikazioaren bidez. Ikasgelan, infografiak eta aurkezpenak erabili ahal izango ditu irakasleak, eduki multzo bakoitzaren sarrerak egiteko.

Ikasgelatik kanpo egingo da ikasketaren beste parte bat, bideoak ikusi eta tartekatuta dau-den galderak erantzunez.

Formatu horrek klaseko orduz kanpo ikastea ahalbideratzen du, eta gainera irakasleak ikaslearen ikas prozesuaren jarraipena egingo du, Edpuzzle aplikazioaren bidez. Aplikazio horrekin bideoak nork ikusi dituen eta galderei emandako erantzunak erregistratuta geratzen dira.

KAHOOTA

Irakasleak erronka proposatzen badu, erronkaren hasieran eta bukaeran Kahoota erabili dezake, ikasleen ezagutza maila neurtzeko. Gainontzeko baliabideak erronkan zehar erabiliko



AURKEZPEN BIDEOA

Heziraul proiektura gerturatzeko bideoa.



dira, bereziki lehenengo bost pausoetan.

Heziraul proiektua aurrera eramateko Tolosaldea, Txurdinaga, Mendizabala eta Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratueta, eta Laneki Elkarteko irakasleak aritu dira lanean. Laneki Elkartek eta Teknikak kolaboratu dute proiektuan.

Uztailaren 11tik-17ra
biak barne

MATRIKULA

Onartuak daudenentzat:
Behin-behineko zerrendak:
Uztailak 5

Zerrenden erreklamazioak:
Uztailaren 8ra arte

Behin betiko zerrendak:
Uztailak 11

Onartuen zerrendak
<https://ikasgunea.euskadi.eus/es/webgunean> (erregistratuta) edo Tolosaldea idazkaritzan (Ezin dugu telefonoz datua eman)

Santa Luzia 17 - Tolosa
943 65 11 47
www.tolosaldea.com

<https://www.facebook.com/tolosaldea>
<https://twitter.com/TolosaldeaLH>
<https://www.youtube.com/TolosaldeaLH>